



EMAKUME SORKUNTZA:
EKOSISTEMAREN KARTOGRAFIA
BERRIAK

Amurrioko Aresketa Ikastolatik 2020ko Araba Euskaraz antolatzeke erronka DARABAGU. Aurtengo helburuen arteko bat euskal sortzaileak eta zaleak batuko dituzten plaza berriak antolatzea dugu, kultur ekosistemaren eragileak ezagutuz eta euren arteko harremanak sendotuz, propio sortutako ekimen kulturalen bidez.

Kultur ekosistemaren ideia ez da berria. Aiaraldean, 2016an proposatu zuten Aiaraldea Komunikazio Leihoak, Bertsozale Elkartek, Ahotseneak, EHAZEK, eta Topaguneak JALGI ekimena abiarazterakoan, eta oinarrian gure kulturgintzaren diagnostiko adostu batetik erakarritako irudi-eredu bat litzateke. Bertan, kultur sortzaileak, programatzaileak, zaleak eta kultur kazetariak identifikatzen dira ekosisteman eragile gisa eta beraien arteko sinergia berrien beharra azpimarratzen da honen bizirautea bermatzeko.

Ildo honi jarraiki, Aurtengo martxoaren 3tik 15era Aiaraldeko emakumen sortzaileen egitekoa ezagutzeko aukera izango dugu **EMAKUME SORKUNTZA: Ekosistemaren kartografia berriak** zikloari esker. Ilustrazioa, bideo-arte, arkitektura, eskultura, argazkia eta pinturak erakutsiko dira Amurrioko La Casona aretoan antolatu dugun erakusketa anitzean. Bertan, 11 sortzaile hauen lanak egongo dira ikusgai: **Yolanda Mosqueraren**, **Raisa Alavaren**, **Sharai Solarren** eta **Eider García**ren ilustrazioak, **Eider Eguren**en eta **Ane Seijas**en bideo-arte instalazioak, **Nagore Ayes**aren arkitektura soziala, **Begoña Guillén**en eta **Alazne Usategui**ren argazkiak, **Susana Corbell**aren keramika eskulturak eta **Soiartze Alday**ren margoak.

Martxoaren 6an aldiz, Aiaraldeko sortzaileak eta Euskal Herriko kulturgileen arteko zubiak eraikiko ditugu **mahai inguru baten bidez**. Hizlari-Artistek, norberaren lanetik abiatuz, euskara, kultur transmisioa eta genero ikuspegiaz osaturiko unibertso poliedrikoan murgilduko gaituzte. Arratsaldea 17:00etan abiatuko dugu, sortzaileekin batera erakusketan zehar egindako bisita gidatuarekin, 18:00etan berriz Ekosistemaren kartografia berrietan murgilduko gara **Uxue Alberdi** (idazle eta bertsolaria), **Birkite Alonso** (musikaria) eta **Haizea Barcenilla**ren eskutik (EHUko Arte Historian doktorea). Arte lanez inguraturiko mahai inguruaz gozatzeko mokadu beroa eskainiko da, hala nola bat-bateko itzulpen zerbitzua.

Ekimen honen bitartez Amurrio eta Aiaraldeko emakume elkarteetan gauzatzen den lan isil eta funtsezkoa omendu nahi dugu **Aresketa Ikastolatik**, eta, 2020ko Araba Euskaraz aitzakian, euskarazko kultur ekosistemaren ezagutza eta transmisioan gurekin batera murgiltzera gonbidatu nahi zaituztegu **DARABAGU** lelopean.